Hirugarrenei dagokienez, behar bezalako arreta-prozedurak aplikatu beharko dira, unean uneko inguruabarren arabera; eta, horrela, haien jarduketa desegoki edo legez kontrako batek eragin ditzakeen arriskuak minimizatu beharko dira.

*Sobre todo tercero se deberán aplicar los correspondientes procedimientos de diligencia debida en función de las circunstancias concurrentes, minimizando así potenciales riesgos derivados de una actuación imrpopia o ilícita por parte de aquellas.*

Hirugarrena hautatzeko prozesuak behar bezala dokumentatuta egon beharko du, eta formalizatu beharreko kontratuaren edukian honako xedapen hauek bete beharko dira:

- Idatziz jaso beharko da, eta funtsezko baldintzak jaso beharko dira Plan honetan xedatutakoaren arabera.
- Argi eta garbi zehaztuko ditu Udalaren eta hirugarrenaren eskubideak eta betebeharrak, eta datu pertsonalak babesteari uruzko araudian ezarritakoa bete beharko du beti.

*El proceso de selección del Tercero deberá estar debidamente documentado y en el contenido del contrato a formalizar se deberán cumplir las siguientes disposiciones:*

- *Deberá constar por escrito y recoger las condiciones esenciales de conformidad con lo dispuesto en el presente Plan.*
- *Definirá con claridad los derechos y obligaciones del Ayuntamiento y del tercero y deberá cumplir en todo caso lo establecido en la normativa sobre protección de datos de carácter personal.*

- Prestakuntza. Udalak prestakuntza-ekintzak antolatuko ditu hartzaileentzat iruzurraren eta ustelkeriaren prebentzioaren arloan. Gainera, beren ezaugarriak direla-eta, iruzurrarekin, ustelkeriarekin, eroskeriarekin, kapitalak

- *Formación. El Ayuntamiento organizará acciones de formación dirigidas a los destintarios en materia de prevención del fraude y la corrupción. Además, promoverá la impartición de cursos específicamente dirigidos al personal que desempeñe puestos*

zuritzearekin eta terrorismoaren finantzaketarekin zerikusia izan dezaketen gertaerak edo eragiketak detektatzeko egokiak diren lanpostuetan diharduten langileei bereziki zuzendutako ikastaroak ematea sustatuko du, pertsona horiek trebatuz.

*de trabajo que por sus características sean idóneos para detectar los hechos u operaciones que puedan estar relacionados con el fraude, la corrupción, el soborno, el blanqueo de capitales y la financiación del terrorismo, capacitando a estas personas.*

3.2 Detekzio neurriak

*3.2 Medidas de deteción*

- Arrisku-adierazleak (Bandera gorriak) eta egiaztapen-zerrenda

*- Indicadores de riesgo (banderas rojas) y lista de comprobación:*

Udalaren jarduketa-eremuan iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko arrisku-adierazlen (bandera gorriak) katalogo bat egitea, bandera gorri horietakoren bat hautemanez gero jarraitu beharreko prozedura zehaztuta.

*Elaboración de un catálogo de indicadores de riesgo (banderas rojas) para la lucha contra el fraude y la corrupción en el ámbito de actuación del Ayuntamiento, con definición del procedimiento a seguir en el caso de que se detecten algunas de estas banderas rojas.*

Bandera gorriak balizko iruzurraren alarma-seinaleak, pistak edo zantzuak dira. Bandera gorriak egoteak ez du nahitaez esan nahi iruzurra dagoenik; baina jarduera-eremu jakin batek arreta gehigarria behar duela adierazten du, iruzur potentzial bat baztertzeko edo baieztatzeko.

*Las banderas rojas son señales de alarma, pistas o indicios de posible fraude. La existencia de una bandera roja no implica necesariamente la existencia de fraude, pero sí indica que una determinada área de actividad necesita atención extra para descartar o confirmar un fraude potencial.*

IV. Eranskin gisa erantsi da balizko bandera gorrien zerrenda, iruzurrezkoak izan daitezkeen jardunbideen tipologiaren arabera sailkatuta.

*Se adjunta como Anexo IV el listado de posibles banderas rojas clasificadas por tipología de práticas potencialmente fraudulentas.*

Dagokion espedientean dokumentatuta geratu beharko da, jarduketa-eremuaren arabera, definitu diren balizko bandera gorrien egiaztapen-zerrenda pasatu dela

*Deberá quedar documentado, en el expediente correspondiente según el ámbito de actuación, que se ha pasado la lista de comprobación de las posibles banderas rojas que se hayan definido y el*

eta lortutako emaitza (hau da, atzeman diren ala ez; eta, hala bada, zeintzuk).

*resultado obtenido, esto es, si sean detectado o no y en caso afirmativo cuáles.*

- Integritatearen azterketa. Iruzurraren aurkako Batzordeak espedienteen eta proiektuen integritatea aztertu ahal izango du, arriskuak ebaluatzeko prozesu baten bidez modu independentean hautatuta. Horretarako hautatutako proiektuak sakon aztertu behar dira, debekatutako jardunbideen balizko adierazleak identifikatzeko, aurreko epigrafean aipatutako iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako borrokarako arrisku-adierazleen (bandera gorriak) katalogoa kontuan hartuta.

*- Análisis de integridad. El Comité Antifraude podrá llevar a cabo análisis de integridad de los expedientes y proyectos de selección de forma independiente mediante un proceso de evaluación de riesgos. Los Proyectos seleccionados a tal efecto deben ser objeto de un examen en profundidad con el fin de identificar posibles indicadores de prácticas prohibidas, teniendo en cuenta el catálogo de indicadores de riesgo, banderas rojas, para la lucha contra el fraude y la corrupción mencionado en el epígrafe anterior.*

3.3 Zuzenketarako eta pertsekuziorako neurriak:

*3.3 Medidas de corrección y persecución:*

Udalak neurri zuzentzaileen plan bat onetsiko du arriskuen kudeaketa- eta kontrol-egitura berrikusteko, aldatzeko eta egokitzeko; bai eta Plan horretan aurreikusitakoaren arabera ezarritako neurriak, prozesuak eta prozedurak berrikusteko eta aldatzeko ere.

*El Ayuntamiento adoptará un plan de medidas correctivas para revisar, modificar y adaptar su estructura de gestión y control de riesgos, así como para revisar y modificar las medidas, procesos y procedimientos implantados de conformidad con lo previsto en el presente Plan.*

Bereziki, Udalak honako jarduketa hauek egiteko konpromisoa hartzen du:

- Udalaren gobernantza ona bermatzea eta hartzaileen jokabide etikoa sustazea.
- Hartzaile guztiei prestakuntza, informazio-saioak eta beste komunikazio-tresna batzuk eskaintzea, iruzurrak eta ustelkeriak Udalarentzat eta

*En particular, el Ayuntamiento se compromete a llevar a cabo las siguientes actuaciones:*

- *Garantizar una buena gobernanza en el Ayuntamiento y promover el comportamiento ético de los destinatarios.*
- *Ofrecer a todos los Destinatarios formación, sesiones informativas y otras herramientas de comunicación sobre los riesgos del fraude y la corrupción para el Ayuntamiento y la ciudadanía, así*

herritarrentzat dituzten arriskuei buruz, bai eta iruzurraren aurka hartutako neurriei buruz ere.

- Iruzurra, ustelkeria eta eroskeria prebenitzeko kontrol eraginkor eta efikazak ezarri eta mantentzea.

- Iruzur edo ustelkeria egintzaren bat eginez gero, ikerketa arduratsua eta bidegabeko atzerapenik gabea egiten dela ziurtatzea; alde batera utzita kargua, zerbitzu-urteak eta sumagarriak Udalarekin eta beste hartzaileekin izan dezaketen harremana.

- Kasu guztietan Udalaren diziplina-ahalaren barruan nahitaezko diziplina-neurriak hartzea, eta, hala dagokionean, legezko ekintzak abiaraztea.

- Iruzurrak edo ustelkeriak eragin ahal izan duen kalte ekonomikoa konpentsatzeko ekintza egokiak abiaraztea.

- Hala badagokio, kondenatutako hirugarrenek etorkizuneko kontratazio-prozesuetatik kanpo uztea, aplikatu beharreko araudian aurreikusitako neurrian.

- Antzeko iruzur, eroskeria edo ustelkeria kasuak prebenitzeko sistemak eta prozedurak berrikustea.

4. **<u>Jarraipen-prozedurak</u>:**

*como sobre las medidas de antifraude adoptadas.*

- *Instituir y mantener controles efectivos y eficaces para prevenir el fraude, la corrupción y el soborno.*

- *Asesgurarse de que, de cometerse un acto de fraude o de corrupción, se lleve a cabo una investigación diligente y sin dilaciones indebidas, con independencia del cargo, de los años de servicio y de la relación que la persona sospechosa pueda tener con el Ayuntamiento, así como con otros Destinatarios.*

- *Adoptar en todos los casos las preceptivas medidas disciplinarias dentro de la potestad disciplinaria del Ayuntamiento y cuando corresponda, entablar acciones legales.*

- *Iniciar las acciones pertinentes para compensar el perjuicio económico que haya podido general el fraude o la corrupción.*

- *Excluir en su caso a los Terceros condenados de futuros procesos de contratación en la medida prevista por la normativa aplciable.*

- *Revisar sistemas y procedimientos para prevenir casos similares de fraude, soborno o corrupción.*

***4. <u>Procedimiento de seguimiento</u>:***

Iurzurra Kontrolatzeko Organoa arduratuko da salaketak eta kontsultak jasotzeaz, eta politika honetan adierazitakoaren arabera dagokien izapidetza emango die.

*El Órgano Antifraude se encargará de recibir las denuncias y consultas y las dará la tramitación que corresponda de conformidad con lo indicado en la presente política.*

Iruzurraren Kontrako Organoa arduratuko da irregulartasunari buruzko gertakariak ikertzen hasteaz eta dagokien espedientea izapidetzeaz.

*El Órgano Antifraude se encargará de iniciar la investigación de los hechos relativos a la irregularidad y se encargará de la tramitación del correspondiente expediente.*

Iruzurraren Kontrako Organoa zuzenean edo zeharka (hirugarrenen bidez) irregulartasunean inplikatuta badago, organo horrek ezin izango du parte hartu hura izapidetzen edo harekin lotutako alderdiren bat lantzen duten bileretan. Informazio guztia Udaleko gobernu-organoaren esku jarriko da; eta, une horretatik aurrera, organo hori arduratuko da izapidetzeaz; horretarako, hirugarrenengana jo ahal izango du.

*En caso de que el Órgano Antifraude estuviera directa o indirectamente –a través de terceros- implicado en la irregularidad, este no podrá participar en su tramitación, ni en las reuniones en las que se trate algún aspecto relacionado con la misma, procediéndose a poner toda la información a disposición del órgano de gobierno del Ayuntamiento quien deberá desde ese momento encargarse de su tramitación, pudiendo recurrir a terceros a tal efecto.*

Iruzurraren Kontrako Organoak irregulartasunaren egiazkotasuna eta zehaztasuna egiaztatuko ditu, entzunaldi-izapidea emango die kaltetu eta lekuko guztiei, eta beharrezkotzat jotzen dituen eginbide guztiak egingo ditu. Hartzaile guztiak behartuta daude ikerketan leialki laguntzera. Lekukoen eta kaltetuen esku-hartzea isilpekoa izango da erabat.

*El Órgano Antifraude comprobará la veracidad y la exactitud de la Irregularidad y dará trámite de audiencia a todos los afectados y testigos y practicará cuantas diligencias estime necesarias. Todos los destinatarios están obligados a colaborar legalmente en la investigación. La intervención de los testigos y afectados tendrá carácter estrictamente confidencial.*

Espedientearen izapidetza amaituta, Iruzurraren Kontrako Organoak egokitzat jotzen duena ebatziko du.

*Concluida la tramitación del expediente el Órgano Antifraude, resolverá lo que estime procedente.*

Emandako ebazpenak ondorioztatzen badu hartzaile batek (Udalarekin duen

*En el supuesto de que la resolución emitida concluya que un destinatario (con*

harremanaren izaera gorabehera) irregulartasunen bat egin duela, Iruzurraren Kontrako Organoak giza baliabideen arduradunari edo diziplina-neurri egokiak aplikatzeko eskumena duenari jakinaraziko dio, eta neurri horiek hartu izanaren eta edukiaren berri emango diote Iruzurraren Kontrako Organoari.

*independencia de la naturaleza de su relación con el Ayuntamiento) ha cometido alguna irregularidad, el Órgano Antifraude dará traslado al responsable de recursos humanos o a quien resulte competente para la aplicación de las medidas disciplinarias oportunas de cuya adopción y contenido informarán al Órgano Antifraude.*

Emandako ebazpenak ondorioztatzen badu hirugarren batek irregulartasunen bat egin duela, Iruzurraren Kontrako Organoak idazkaritzako sailari jakinarazio dio, dagozkion kontratu-eskubideak erabil ditzan; eta horren berri emango dio Iruzurraren Kontrako Organoari.

*En el supuesto de que la resolución emitida concluya que un Tercero ha cometido alguna irregularidad, el Órgano Antifraude dará traslado al departamendo de secretaría para el ejercicio de los derechos contractuales oportunos, de lo cual infomrará a Órgano Antifraude.*

Espedientearen ondorioz agerian geratzen bada legezko jarduketak egin behar direla, Iruzurraren Kontrako Organoak zerbitzu juridikoei jakinaraziko dizkie jarduketak, kasuan kasuko jarduketa administratibo edo judizialak hasi ditzaten.

*Cuando como resultado del expediente se ponga de manifiesto la necesaria adopción de actuaciones legales, el Órgano Antifraude dará traslado de las actuaciones a los servicios jurídicos a efectos del inicio de las actuaciones administrativas o judiciales pertinentes en cada caso.*

Atal honetan jasotako ondorioez eta proiektu bat abian jarri eta lizitatzeko berariaz aurreikusitako ondorioez gain, egiaztatzen bada proiektu jakin bati lotutako hirugarren batek politika honetan aurreikusitakoari jarraiki debekatutako jardunbideren bat egin duela kontratazio publikoko prozedura batean edo proiektu bat gauzatzean, Udalak aukera hauek izango ditu:

*Además de las consecuencias recogidas en el presente apartado y de aquellas otras específicamente previstas con ocasión de la puesta en marcha y licitación de un Proyecto, si se constata que un Tercero asociado a un determinado Proyecto a incurrido en alguna práctica prohibida durante un procedimiento de contratación pública o la ejecución de un Proyecto de conformidad con lo previsto en la presente Política el Ayuntamiento puede optar por:*

- Debekatutako jardunbidea behar bezala eta berehala zuzentzeko eskatzea bere gustura.

- *Requerir que se corrija de manera apropiada e inmediata la práctica prohibida a su satisfacción.*

- Ukitutako EBko funtsak itzultzeko eskatzea, hala badagokio.

- *Solicitar el reembolso de los fondos UE en su caso, afectados.*

- Hirugarren hori Udalarekin zerikusia duten kontratuak esleitzeko hautagarria ez dela deklaratzea.

- *Declarar a ese Tercero no elegible para la adjudicación de contratos relacionados con el Ayuntamiento.*

- Udalak kontratu bat emateko eragozpenik ez duela deklaratzea ukatzea eta kontratu-neurri egokiak aplikatzea (hala nola, etetea eta baliogabetzea).

- *Denegar la declaración de no objeción del Ayuntamiento para la concesión de un contrato y aplicar las medidas adecuadas contractuales, como pueden ser la suspensión y anulación.*

- Hirugarrenekin egindako eta proiektuekin zerikusia duten kontratuak Udalak ebatzi ahal izango ditu, honako inguruabar hauetakoren bat geratzen bada:
-
    - Hirugarren batek deskribatutako kontrolak aplikatzeari uko egitea, kontra egitea edo hura oztopatzea.
    - Hirugarrenak aplikatzekoak diren baldintza-agirian edo oinarri arautzaileetan araututako funtsezko baldintzetako edozein ez betetzea.

- *Los contratos con los Terceros y relacionados con Proyectos podrán ser resueltos por el Ayuntamiento en caso de que se produzca cualquiera de las siguientes circunstancias:*
    - *La negativa, resistencia u obstaculización de un Tercero a la aplicación de los controles descritos.*
    - *El incumplimiento por el Tercero de cualquiera de las condiciones esenciales reguladas en el pliego de condiciones o bases reguladoras que resulten de aplicación.*

**5. Interes-gatazkako egoerak prebenitzea eta zuzentzea**:

***5. Prevención y corrección de situaciones de conflicto de interes**:*

Udalaren interesen sustapenak Udaleko interes-gatazken egoeren prebentzioaren buru izan behar du uneroro. Hartzaileek ezin dituzte inola ere beren interes pertsonalak Udalaren interesen aurretik jarri.

5.1 Interes-gatazkari lotutako neurriak

- Prebentzio-neurriak:

- Interes-gatazkaren modalitateei eta hori saihesteko moduei buruzko jakinarazpena eta informazioa ematea hartzaileei.
-
- Prozeduretan esku hartzen dutenek interes-gatazkarik ez dagoela adierazten duen adierazpen bat betetzea (IGEA), betiere kontratazio-organoaren/dirulaguntza emateko organoaren arduradunak, lizitazio-dokumentuak/oinarriak idazten dituzten langileek, eskaerak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzen dituzten adituek, eskaerak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzeko batzordeetako kideek eta prozedurako gainerako kide anitzeko organoek.

Kide anitzeko organoen kasuan, adierazpen hori dagokion bileraren hasieran egin dezakete bileran parte hartzen duten guztiek eta aktan jaso beharko da.

*La promoción de los intereses del Ayuntamiento debe presidir en todo momento la prevención de las situaciones de conflictos de intereses en el Ayuntamiento. Los destintarios en ningún caso pueden anteponer sus intereses personales del Ayuntamiento.*

*5.1 Medidas en relación al conflicto de interés:*

*- Medidas de prevención:*

- *Comunicación e información a los destinatarios sobre las distintas modalidades de conflicto de interés y de las formas de evitarlo.*

- *Cumplimentación de una declaración de ausencia de conflicto de intereses (DACI) por los intervinientes en los procedimientos, en todo caso el responsable del órgano de contratación/concesión de subvención, el personal que redacte los documentos de licitación/bases yo convocatorias, los expertos que evalúen las solicitudes/ofertad/propuestas, los miembros de los comités de evaluación de solicitudes/ofertas/propuestas y demás órganos colegiados del procedimiento.*

*En caso de órganos colegiados, dicha declaración puede realizarse al inicio de la correspondiente reunión por todos los intervinientes en la misma y reflejándose en el Acta.*

- Era berean, IGEA betetzea, laguntza emateko baldintzen barruan interes-gatazka potentziala duten jarduerak egin behar dituzten onuradunek aurkeztu beharreko baldintza gisa.

- *Igualmente, cumplimentación de la DACI, como requisito a adoptar por los beneficiarios que, dentro de los requisitos de concesión de la ayuda, deban llevar a cabo actividades que presenten un conflicto de intereses potencial.*

- Informazioa egiaztatzea merkataritza-erregistroetako datu-baseen bidez, erakunde nazionalen eta EBko erakundeen datu-baseen bidez, langileen espedienteen bidez, edo datuak aztertzeko edo arriskuak puntuatzeko tresnak erabiliz.

- *Comprobación de información a través de bases de datos de los registros mercantiles, bases de datos de organismo nacionales y de la UE, expedientes de los empleados o a través de la utilización de herramientas de prospección de datos o de puntuación de riesgos.*

- Udalari dagokion barne-araudia zorrotz aplikatzea.

- *Aplicación estricta de la normativa interna correspondiente al Ayuntamiento.*

V. Eranskinean IGEA Eredua aurkezten da.

*En el Anexo V se aporta modelo DACI.*

- Detektatzeko eta kudeatzeko neurriak:

*- Medidas de detección y gestión:*

- Hartzaile guztiak behartuta daude proaktiboki adieraztera norberaren edo besteren, benetako edo balizko, edozein interes-gatazka dagoela, egoeraren berri izan den unetik, hierarkian gorago dagoenari informazioa berehala emanez eta Iruzurraren aurkako Batzordearekin harremanetan jarriz (horri buruzko erabakia ebaluatu, interpretatu eta har dezan, behar diren kontrol-neurriak proposa ditzan eta egoera horien erregistroa egin dezan).

- *Todos los destintarios están obligados a declarar proactivamente la existencia de cualquier posible conflicto de interés propio o ajeno, real o potencial, desde el momento en que se tenga conocimiento de la situación, informando de inmediato a su superior jerárquico y contactando con el Comité Antifraude a fin de que evalúe, interprete y adopte una decisión al respecto, proponga en su caso las medidas de control necesarias y lleve el registro de tales situaciones.*

- Udalari dagokio barne-araudia zorrotz aplikatzea.

- *La aplicación estricta de la normativa interna correspondiente al Ayuntamiento.*

5.2 Interes-gatazken kasuan jardutea:

*5.2 Actuación en caso de conflicto de intereses:*

Hartzaileek interes-gatazka bat ikusten badute, benetakoa zein potentziala, arau hauen arabera jokatu beharko da:

- Interes-gatazkak eragindako pertsonek modu proaktibo eta gardenean deklaratuko dute interes-gatazka posible oro.
- Interes-gatazkak eragindako pertsonek ez dute informazio konfidentziala eskuratuko.
- Interes-gatazkak eragindako pertsonak abstenitu egingo dira eztabaidetan eta erabakiak hartzean.
- Interes-gatazkak eragindako pertsonek interes-gatazkak konpontzen lagunduko dute.
- Interes-gatazkan dauden gobernu-organoko kideek berehala jakinarazi beharko diete egoera hori organoko gainerako kideei eta Iruzurraren aurkako Batzordeari.

*En caso de observarse por parte de los Destinatarios un conflicto de interés, tanto real como potencial, se deberá actuar de acuerdo con las siguientes normas:*

- *Las personas afectadas por el conflicto de interés declararán de forma proactiva y transparente cualquier posible conflicto de interés.*
- *Las personas afectadas por el conflicto de interés no accederán a la información confidencial.*
- *Las personas afectadas por el conflicto de interés se abstendrán en las deliberaciones y en la toma de decisiones.*
- *Las personas afectadas por el conflicto de interés colaborarán en la resolución de los conflictos de interés.*
- *Los miembro del órgano de gobierno incursos en situación de conflicto de interés, deberán comunicar inmediatamente de tal situación a los demás miembros del órgano y al Comité Antifraude.*

## 6. <u>Kontsulten eta salaketen kanala</u>:

## *6. <u>Canal de consultas y denuncias</u>:*

6.1 Udal kanala:

Jokabide txarraren, iruzurraren, ustelkeriaren edo beste edozein urraketa etikoren susmoak modu konfidentzial eta babestuan jakinarazteko aukera bermatzen du Udalak. Horretarako, Udalak konpromisoa hartzen du kanal etiko bat ezartzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentarauan, Europar Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesari buruzkoan, aurreikusitakoaren arabera.

Hartzaileek nahitaez eman behar dute Plan hau iruzurrezko egintzen edo egintza ustelen ondorioz ez betetze edo urratzea eragin dezaketen eta jakinaren gainean dauden edo susmatzen dituzten egintza edo egitate guztien berri. Edozein gorabeheraren berri eman behar da lehenbailehen. Horretarako, Udalak komunikazio-kanal bat jarri du abian. Honakoa da kanal hori:

Helbide elektronikoa: iruzursalaketak@ordizia.eus.

Era berean, hartzaileek Plana osatzen duten arauei eta printzipioei buruzko kontsultak bidali ahal izango dituzte kanal honen bidez; eta horren irismenari, manuen interpretazioari edo kasu jakin batean aplikatzeari buruzko zalantzak ere jasoko dituzte, zehaztasunik gabe.

Iruzurraren aurkako Batzordearen ardura izango da salaketak eta kontsultak izapidetzea. Salaketak Batzordeko

*6.1 Canal municipal:*

*El Ayuntamiento garantiza la posibilidad de notificar cualquier sospecha de mala conducta, fraude o corrupción o cualquier otra violación ética de manera confidencial y protegida. A tales efectos, el Ayuntamieto se compromete a implantar un Canal Ético según lo dispusto en la Directiva (UE) 2019/1937 del Parlamento Europeo y del Consejo de 23 de octubre de 2019 relativa a la protección de las personas que informen sobre infracciones del Derecho de la Unión.*

*Los destintarios tienen la obligación de informar de todos aquellos actos o hechos de los que tenga conocimiento o sospecha que puedan suponer incumplimientos o violaciones del presente Plan por actos fraudulentos o corruptos. Se debe informar de cualquier incidencia lo antes posible. A tal efecto, el Ayuntamiento ha habilitado un canal de comunicación. El canal es el siguiente:*

*Correo electrónico: iruzursalaketak@ordizia.eus*

*Asimismo, los Destinatarios podrán remitir a través del Canal Ético consultas sobre las normas y principios que conforman el Plan, incluyendo, sin carácter exhaustivo, dudas sobre su alcance, interpretación de sus preceptos o aplicación a un supuesto concreto.*

*El Comité Antifraude será el ecargado de la tramitación de las denuncias y las consultas. En caso de que la denuncia*

kideren bati eragin badiezaioke, pertsona horrek ezin izango du parte hartu hura izapidetzen, ezta harekin zerikusia duen alderdiren bat lantzen den bileretan ere. Salaketak Iruzurraren aurkako Batzorde osoari eragiten badio, Udalaren gobernu-organoa arduratuko da hura izapidetzeaz, eta hirugarrenengana jo ahal izango du horretarako.

*pudiera afectar a algún miembro del Comité, esta persona no podrá participar en su tramitación ni en las reuniones en las que se trate algún aspecto relacionado con la misma. En caso de que la denuncia afectase a todo el Comité Antifraude, será el órgano de gobierno del Ayuntamiento quien se encargue de su tramitación, pudiendo recurri a terceros a tal efecto.*

Salaketa faltsuak edo ezarritako prozeduraren arabera iruzurrezko jardueren edo jarduera ustelen susmoak behar bezala ez salatzea diziplina-neurrien edo bestelakoen xede izango dira, kasu bakoitzean dagokionaren arabera, salaketa egiten duen pertsona eta Udalarekin duen harremana kontuan hartuta.

*Las denuncias falsas o el hecho de no denunciar oportunamente las sospechas de actividades fraudulentas o corruptas de acuerdo con los procedimientos establecidos serán objeto de medidas disciplinarias o de otro tipo, según proceda en cada caso en atención a la persona que realice la Denuncia y su relación con el Ayuntamiento.*

Ez dira onartuko ustezko iruzurraren jarduerak edo jarduerak ustelak salatzeagatiko errepresaliak eta zigorrak; eta edozein salatzailek Udalaren laguntza eta babeserako eskubidea izango du, errepresalia mota oro saihesteko; hargatik eragotzi gabe salatzaileak nahita edo asmo txarrez egindako faltsutzeetan zehapenak ezartzea.

*No se tolerarán las represalias y el castigo por denunciar presuntas actividades fraudulentas o corruptas y cualquier denunciante tendrá derecho a asistencia y protección del Ayuntamiento para evitar cualquier tipo de represalia, sin perjuicio de las sanciones en caso de falsedad deliberada o mala fe por parte del denunciante.*

6.2 Udalaz gaindiko kanala:

*6.2 Canal supramunicipal:*

Herritarrek zein enplegatu publikoek, barne-komunikazioko sistemaren ahuleziengatik edo eraginkortasunik ezagatik Europako funtsei eragiten dieten iruzur-zantzuak ezagutuz gero, Iruzurraren aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionalari –SNCA- jakinarazi ahal izango dizkiote zantzu horiek edo ustez iruzurrezkoak diren gertakariak, kanpo-salaketa-kanalaren bidez (infofraude); baloratzeko eta Iruzurraren

*Tanto los ciudadanos como los empleados públicos, en caso de conocer indicios de fraude que afecten a fondos europeos, por debilidades o falta de operatividad en los sistemas de comunicación interna, podrán comunicar tales indicios o los hechos presuntamente fraudulentos al Servicio Nacional de Coordinación Antifraude –SNCA- a través del Canal de denuncias externo Infofraude para su valoración y eventual comunicación a la Oficina Europea de Lucha contra el Fraude.*

aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari behin-behinean jakinarazteko.

Horretarako, jardun susmagarrien edota irregulartasun jakinarazpenak SNCAk horretarako prestatutako kanalaren bidez egin ahal izango dira, helbide elektroniko hoentan:

IGAE:Comunicación de información sobre fraudes o irregularidades que afecten a fondos europeos (hacienda.gob.es)

*A tal efecto, los comunicantes de actuaciones sospechosas y/o irregularidades podrán ser realizadas mediante el canal habilitado para ello por el SNCA en la dirección web:*

*IGAE:Comunicación de información sobre fraudes o irregularidades que afecten a fondos europeos (hacienda.gob.es)*

**7. Iruzurraren kontrako Organoa:**

***7. Comité Antifraude:***

7.1 Osaketa

Udal honen iruzurraren kontrako neurriak behar bezala aplikatzen direla ziurtatzeko, Iruzurraren kontrako Batzordea izendatu da. Batzorde hori Udaleko zerbitzu edota bulego hauetan gaikuntza berezia duten langileek osatuko dute.

Iruzurraren aurkako Batzordea Korporazioko idazkariak, kontu-hartzaileak eta diruzainak osatuko dute, eta Idazkaritzako Administrazio Orokorreko Teknikari batek organoko idazkari gisa jardungo du. Organoaren lehendakaria Udal idazkaria izango da.

Ordezko gisa jardungo dute Ordiziako Udaleko Administrazio Orokorreko Teknikariek.

Udalbatzak izendatuko ditu kideak.

*7.1 Composición*

*Para asegurar una correcta aplicación de las medidas antifraude en este Ayuntamiento, se ha designado un Comité Antifraude, integrado por personal propio con especial capacitación perteneciente a los servicios y/o dependencia municipales.*

*Constituirán el Comité Antifraude las personas Secretaria, Interventora y Tesorera de la Corporación, actuando como presidente/a del órgano el/la secretario/a de la Corporación y un/a Técnico de Administración General del Departamento de Secretaría como secretario.*

*Actuarán como suplentes los Técnicos de Administración General del Ayuntamiento de Ordizia.*

*Los miembros serán designados por el Pleno de la Corporación.*

7.2 Batzordearen betekizunak

Iruzurraren kontrako Batzordeari honako betekizun hauek esleitzen zaizkio:

1. Iruzur-arriskuaren aldizkako ebaluzazioa, gerta daitezkeen iruzurrak aurreikusi eta atzemateko barne-kontrol eraginkorra dagoela ziurtatuta.
2. Iruzurraren kontrako politikak definitzea eta iruzur-saiaketak prebenitzen, atzematen, zuzentzen eta jazartzen utziko duten neurriak diseinatzea.
3. Udaleko gainerako langileak kontzientziatu eta prestatzea.
4. Iruzur susmorik izanez gero, informazio-espediente bat irekitzea, iruzurrean nahasitako atalei egokitzat jotzen den informazio guztia eskatuz, aztertu dadin.
5. Irekitako espediente informatiboak ebaztea eta, susmoak arrazoi gabeak badira, artxibatzeko agindua ematea, edo bidezko neurri zuzentzaileak hartzea iruzurra benetan gertatu dela ondorioztatuz gero.
6. Alkatetzari eta Idazkaritzari hasitako espedienteetan ateratako ondorioen berri ematea eta, hala

*7.2 Funciones del Comité*

*Al Comité Antifraude se le asignan las siguientes funciones:*

1. *Evaluación periódica del riesgo de fraude, asegurándose de que exista un control interno eficaz que permita prevenir y detectar los posibles fraudes.*
2. *Definir la Política Antifraude y el diseño de medidas necesarias que permitan prevenir, detectar, corregir y perseguir los intentos de fraude.*
3. *Concienciar y formar al resto de personal municipal.*
4. *Abrir un expediente informativo ante cualquier sospecha de fraude, solicitando cuanta información se entienda pertinente a las unidades involucradas en la misma, para su oportuno análisis.*
5. *Resolver los expedientes informativos incoados, ordenando su posible archivo, en el caso de que las sospechas resulten infundadas, o la adopción de medidas correctoras oportunas si llegase a la conclusión de que el fraude realmente se ha producido.*
6. *Informar a la Alcaldía y Secretaría de la Corporación de las conclusiones alcanzadas en los expedientes incoados y, en su*

bada kasua, aplikatutako neurri zuzentzaileen berri ematea.

*caso, de las medidas correctoras aplicadas.*

7. Beharrezko informazioa ematea onuradunek bidegabeki jasotako zenbatekoak berreskuratzeaz arduratzen diren erakundeei edo organismoei, edo administrazio edota zigor arloko zehapenak hastea.

*7. Suministrar la información necesaria a las entidades u organismos encargados de velar por la recuperación de los importes indebidamente recibidos por parte de los/as beneficiarios/as o incoar las consiguientes sanciones en materia administrativa y/o penal.*

8. Egindako laginketen, atzemandako gorabeheren eta irekitako eta ebatzitako informazio-espedienteen erregistroa egitea.

*8. Llevar un registro de los muestreos realizados, de las incidencias detectadas, y de los expedientes informativos incoados y resueltos.*

9. Urteko Memoria egitea, non Iruzurraren kontrako Batzordeak egin dituen jarduerak bilduko diren.

*9. Elaborar una Memoria Anual comprensiva de las actividades realizadas por el Comité Antifraude en el ámbito de su competencia.*

7.3 Erregimena eta funtzionamendua

*7.3 Régimen y funcionamiento*

Iruzurraren aurkako Batzordeak independentziaz eta inpartzialtasunez jardun beharko du eta bere lana ahalik eta arreta eta gaitasun profesional handienaz gauzatu. Horretarako, Iruzurraren aurkako Batzordeak Udaleko sail eta prozesu bakoitzak bere eginkizunak betetzeko behar duen informazio eta dokumnetazio guztia bilduko du, eskatutako pertsonaren hierarkia-maila edozein dela ere.

*El Comité Antifraude deberá actuar con independencia e imparcialidad y ejecutar su trabajo con la máxima diligencia y competencia profesional. A tal efecto, el Comité Antifraude recabará cuanta información y documentación sea precisa para el cumplimiento de sus funciones de cada uno de los departamentos y procesos del Ayuntamiento, con independencia del nivel jerárquico de la persona requerida.*

Iruzurraren aurkako Batzordeak hirugarrenen laguntza eta aholkularitza eskatu ahal izango du, bere eginkizunak behar bezala betetzeko beharrezkoa edo komenigarria dela uste duenean; eta ekimen-askatasuna izango du, ikerketa bat hasi ahal izateko aurretiazko salaketarik edo goragoko baten agindurik

*El Comité Antifraude podrá solicitar la colaboración y asesoramiento de terceros cuando lo estime necesario o conveniente para la correcta realización de sus funciones y tendrá libertad de iniciativa, en el sentido de poder iniciar una investigación sin necesidad de que exista una denuncia previa o la orden de un*

egon beharrik gabe, betiere edozein arrazoi dela-eta egokitzat jotzen badu.

*superior, siempre que, por cualquier circunstancia lo considere conveniente.*

Iruzurraren aurkako Batzordeak isilpean gordeko ditu bere eztabaidak eta erabakiak; eta, oro har, ez ditu ezagutaraziko bere karguan diharduela eskura dituen informazio, datu, txosten edo aurrekariak, ez eta bere edo hirugarrenen onurarako erabiliko ere. Iruzurraren aurkako Batzordearen konfidentzialtasun-betebeharrak bere horretan iraungo du, nahiz eta kargua utzi.

*El Comité Antifraude velará por el secreto de sus deliberaciones y acuerdos y, en general, no revelará las informaciones, datos, informes o antecedentes de que disponga en el ejercicio de su cargo, ni los tratará en beneficio propio o de terceros. La obligación de confidencialidad del Comité Antifraude se mantendrá en sus propios términos aunque cese en su cargo.*

Iruzurraren aurkako Batzordea balizko interes-gatazka batean badago, horren berri eman beharko dio gobernu-organoari eta hark izango du gai horren inguruan sortu daitezkeen zalantzak edo gatazkak ebazteko eskumena.

*En el caso de que el Comité Antifraude estuviera incurso en un potencial conflicto de interés deberá informar sobre ello al órgano de gobierno, que será asimismo competente para resolver las dudas o conflictos que puedan surgir al respecto.*

Organoaren deialdia idazkari gisa diharduen kideak egingo du, egoki irzten zaionean edo edozein kidek proposatuta. Iruzurraren aurkako Batzordearen bilera guztiek akta egingo du idazkari diharduenak, eta akta hori bilerara joan diren Batzordeko kide guztiek sinatu beharko dute.

*La convocatoria del órgano se realizará por aquel de sus miembros que actúe como secretario, siempre que se considere oportuno y a propuesta de cualquiera de los miembros del mismo. De todas las reuniones del Comité Antifraude se levantará acta por quien actúe como secretario, la cual deberá estar firmada por todos los miembros del Comité que hayan asistido a la reunión.*

Iruzurraren aurkako Batzordeari, halaber, kide anitzeko organoak arautzen dituen administrazio-araudia aplikatuko zaio oro har.

*Al Comité Antifraude le será además de aplicación con carácter general la normativa administrativa reguladora de los órganos colegiados.*

## 8. <u>Berrikuspena eta eguneratzea</u>:

## *8. <u>Revisión y actualización</u>:*

Plan hau indarrean egongo da hura baliogabetzea edo aldatzea onesten ez den bitartean. Berrikuspenak eta aldaketak Iruzurraren Kontrako Organoak proposatuta egingo dira.

*Este Plan estará vigente en tanto no se apruebe su anulación o modificación. Las revisiones y modificaciones se harán a propuesta del Órgano de Control de Fraude.*

Plana onesteko eskumena duen organoak berak onetsi beharko ditu politika honen aldaketa eta eguneraketak.

*Las aprobaciones de cada una de las modificaciones y actualizaciones de la presente política deberán realizarse por el mismo órgano competente para aprobar el plan.*